# SASKI-NASKI

# AMAREN MAITASUNA TA UMEAREN EZIKERA

Amaren edo ordezko bate maitasunik gage azi izan diren umeen ezikerak utsune aundia darama. Utsune onek emango ditu bere garaian dagozkion aleak. Gure "Seaska-Etxe"-etako aurtegiak damaizkigukete adibideak ugari. Ona bat.

Patxi B. bi urteko umea da. Ama neskazar,bere gorputza edonori saltzen dion emakume moralgabea. Patxi irugarren sasikoa du. Amabost bat illabete betetzean berekin darama umea. Garai ontan ez daki ibiltzen. Gero,bi urte egitean "ama" beste itzik mintza ezin du. Biberoia bearrean dago. Amak ez dio arretik. Beti goibel, beti illun,beti buru-zalatzaka,irriparrik ez.

Amak maitasunik ez diola agertzen-da ogeita amabost urteko emakume baten ardurapean jartzen dute. Onek semetzat artzen du ta mimoz ta arretaz inguratzen. Iru illabetera joaten gatzaizkio ikustalditxo bat egiteko asmoz,eta berak irikitzen digu atea; berak jostallutxa aundi bat erakutsiz: "Au dana nerea da". Arrerako betebearrak egiten erakutsi dizkiote. egin ere poliki dagizki. Zoragarria dago. Iru illabetetan kidekoen mallara igo da.

Patxik amaordezko on bat arkitu zun. Orrek bete lenengo bi urteetako utsunea. Zorion ori egokitu ez balitzaio bere adimen erakerak baterez edo ezer gitxi aurreratuko zukean. Zearo zozoturik geldtzeko arrisku aundian daude amaren edo ordezko on baten maitasun eta arreta-

rik gabe azi diran umeak.

Idatzi ditudan apurrak TELDMANN Jaunak gai oni buruz Ginebran eman zun eleka bildu ditudan ezkero, badezko deritzait elekatzaille berak abaiak eman jartzea:

"Amaren maitasunik ezak umearen adimeran geiberarik sortu ez dezan, bearrezko bi arau auok betetzea:

a) Lenengo ez dedilla ama umearengandik aldendu. Bugaurre, maite ta zaindu dezan eta bear duau eskeirtasuna eman dezaion. Umeari arretik ez dion ama leyatsu batek errez sortuko ditu aren adimen erakeran garrantzi aundiko goiberak, batez ere bere buruarekiko eskiergabetasun negargarri bat.

b) Bigarren indartu umearen "ni"-a, nortasuna, gurasoen aldetik, amarenatik batez ere, amai gabe azaltzeñizaion atsegiñarekin. Geiegikeririk gabe baño, umeari adierazi egin bear zaio bere aurrerapenak gurasoei ematen dien atsegin eta poza".

A yestaran-dar Xabin (ofm)

(Arantzazu-ko Teologari)

